

Alphagalileo euskaraz


Rakel Lopez
Elhuyar Fundazioa

Hemendik aurrera, *Alphagalileo*, Europako ikerketaren berri ematen duen web gunea, euskaraz erabili ahal izango da eta baita gaztelaniaz ere.

2003KO OTSAILEAN ELHUYAR FUNDAZIOA, Basque Research atariaren bitartez, *Alphagalileo*-ren partaide eta espaniar estatuaren ordezkari bihurtu zen. Hain zuzen ere, ordezkartzako akordio horren baitan itzuli da web gunea euskarara eta gaztelaniara.

Sortu zenetik hau izan da *Alphagalileo*-ren asmoa: Estatu Batuetatik etortzen ziren ikerketa-berrien nagusitasuna apurtu eta Europan egiten zen ikerketa indar handiagoz plazaratzea. Proiektua Ingalaterrako *British Association* elkarteak zuzentzen badu ere, gaur egun Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Portugal eta Suediako ikerketa-kontseiluak ari dira ordezkari-lanetan, eta Europako Zientzia Fundazioa ere partaide da.

Alphagalileo-k Europan egiten den ikerketaren erakusleihoa izan nahi du. 4.330 kazetari eta 1.712 berri-emaile daude izena emanda, eta, web gunean, 15.000 berriatik gora, 3.000 ekitaldi eta 200 liburu daude kontsultagarri.



Alphagalileo erabiltzen du nagusiki www.basqueresearch.com web gunea Euskal Herrian egiten den zientzia-ikerketa atzerrian zabaltzeko. Eta *Alphagalileo*-z gain, baita ikerketan espezializatutako beste web gune hauek ere: Estatu Batuetako *EurekaAlert!*, Alemaniako *Innovations Report* eta *Cordis-Wire*.

ZerNola

Bukatu da, bukatu da... II. ZerNola Olinpiada

San Viator txapelkun. Horixe abestuko dute Gasteizko San Viator ikastetxeko ikasle eta irakasleek, ikastetxe horretako 2B ikasgelak irabazi baitu 2003-04 ikasturteko zientzia-olinpiada. Gogotsu aritu dira zazpi hilabetez lanean Euskal

Herriko 92 ikasgela, eta zorrotz erantzun diete Armixek, Zernola atariko maskotak, jarritako galderei. Sailkapen orokorrean Iruñeko Jaso ikastolako 2. maila gelditu da bigarren postuan eta Elgoibarko 1B gela izan da hirugarren. ZerNola olinpiadak DBH1 eta DBH2-ko ikasleentzako antolatzen dira.

Urtean zehar hain zintzo erantzuteagatik, gela irabazlea asteburu-pasa joango da laster Urbasako Bioitza aterpetxera. Han, eskalada, espeleologia, mendi-irteerak eta beste hainbat jarduera egiteko aukera izango dute. Eta gainerakoek heldu den urtean ere izango dute beste aukera bat. Izan ere, hurrengo ikasturtean ere izango da olinpiada, hainbat aldaketa eta berrikuntzarekin.